


# noaua

Lip dub bat antolatu  
dute urriaren 16rako

Asteburu honetan  
hasiko dira jaiak  
Aginagan

“Independentziarako  
bideak” jardunaldia



Zaparra musika taldea

Udako bira borobilduko dute Aginagan



# ETXEBIZITZA ENKANTEAN



Eskera egiteko  
azken eguna:  
**ABENDUAK 20**



Lizitazioko gutxienezko prezioa:

**106.323'45 euro**

Lizitazioko gehienezko prezioa:

**132.823'45 euro**

Informazio gehiagorako: **943371951**  
edo **kontratazioa@usurbil.eus**

[www.behetik.com](http://www.behetik.com)

## Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

·plataformak ·igogailu bereziak ·aulki bereziak...



# b ehetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

# Otar-Goxo

Elikagaiak

Zuretzako janaria  
prestatzen dugu!  
Dazta itzazu gure  
produktu berriak!



Hirukide elkarteko kide diren  
familientzat... %5 EROSKETA GUZTIETAN!



## 10. URTEURRENA!

GURE BEZEROEKIN OSPATU NAHI DUGU!  
URRIAREN 4AN, ASTEARTEA  
GASTRO-POTEA OTARGOXON 18:00-19:30



Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

## Albiste iruditzen

# Usurbil Cup-en amaiera

**3** 50-400 bat haur eta gaztetxok parte hartu du 2016ko Usurbil Cup-en. Ez da nolanhikoa, Usurbil F.T.-k antolaturiko lagun arteko kirol ekintza honek mugiarazten duen jendetza. Irailaren 24an ospaturiko amaiera ekitaldian argi ikusi ahal izan zenez, ekimen hau izango da ziurrenik jende gehien biltzen duen ekintzetako bat Usurbilen.

Hilabeteko txapelketaren ostean, frontoian eginiko sari banaketarekin, akabo aurtengo edizioa. Talde guztiek jaso zuten, pilotalekura gerturaturikoen me-rezitako txalo zaparrada. Haur eta gazte-  
txoak gustura noski, izan zuten harrera ikusita. Ekitaldiko irudi bilduma, noaua. eus atariko Argazkitegian duzue.



Irailaren 24an amaitu zen Usurbil Cup. Ostiral honetan zabalduko da Futbol Eskolan izena emateko epea.

## Izen ematea, Futbol Eskolan

Usurbil F.T.-tik berri eman dutenez, Futbol

Eskolan izen emateko aukera izango da, ostiral honetan, irailak 30. Gerturatu Ha-

ranera arratsaldean, 17:00-18:30 artean, eta bertan bideratu ahalko duzue inskripzioa.

## Laburrean

### 1955. urtean jaiotakoan afaria, urriaren 15ean

Urriaren hirugarren larunbatean, urriak 15, 1955. urtean jaiotakoak batuko dira. Izena emateko bi aukera: 1955usurbil@gmail.com helbidera idatziz. Edo telefonoz: 615 760 458 (Patxi).

### Urriaren 30ean, 1946an jaiotakoan bazkaria Antxetan

Izena aurrez eman beharko da Laurok liburu dendan, urriaren 23a baino lehen. Honatx Laurokeko telefono zenbakia: 943 36 34 48. Aurtun 70 urte bete dituzte edo beteko dituzte herritarrok.

### Istripu baten harira, Ertzaintza lekuko bila dabil

Astelehen eguerdian, G-11 errepidean Donostian (Lasarterako noranzkoan), 34 urteko Usurbilgo gizonezko bat hil zen istripuz. Ertzaintza lekuko bila dabil. Argibiderik duenak, hona deitu: 943539125.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

## Zorioneko burkinia

**E**saiezu emakume sinesdunei begirada jaisteko eta eratasunez jantzeko; ez dituztela beren edertasuna eta apaingarriak agertu behar; beloarekin estali behar dituztela bularrak; beren edertasun hori senarrari eta gurasoei bakarrik agertu behar die-la. Honela dio Korana liburu sakratuak. Polemika galanta sortu da uda honetan Frantziako hainbat lekutan emakume islamiar batzuk "burkinia" deituriko bainujantziarekin joan direlako hondartzetara. Cannesen eta Frantziako beste zenbait herritan debekatu egin dute. Baina, debeku hori bertan behera utzi du Estatuko Kontseiluak. Gure inguruan ez da egon arazorik jantzi klase hau erabiltzeagatik.

Duela hamabi bat urte Aheda Zanetti libanoarrak asmatu zuen burkinia bainujantzia eratasunez jantzi nahi zuten emakumeentzat; sekulako arrakasta izan zuen; gorputz osoa estaltzen du, oinak, eskuak eta aurpegia ezik. Baina, emakume musulmanen artean ez da asko zabaldu, mendebal-

detik etorritako zerbait arraroa bezala hartu dute eta. Izan ere, giro kontserbadore horietan ur kirolak eta emakumeentzat sortutako kirolak bekatu bidetzat hartzen dira eta debekatuta daude. Fanatikoentzat, burkiniaren sortzailea eta bere bezeroak emagaldutako batzuk besterik ez dira eta denak infernuan kiskaliko dira.

Arazo hau oso konplexua da eta ez du irtenbide erraza. Bizpahiru printzipio nagusi aipatu nahi ditut auzi honen gainean:

1- Zalantzarik gabe, eta tamalez, islamismo erradikalena (hau da, emakumearen sumisioa edo menpekotasuna aldarrikatzen duena) indartzen ari da. Salafismoa (Korana hitzez hitz interpretatu behar dela esaten duen mugimendu politiko erlijiosoa) korrante zorrotzena nagusi den Saudi Arabian diru asko jartzen ari dira iman estremistak prestatzeko eta horien predikua ahalik eta gehien zabaldua izan dadin. Turkian eta Marokon ere korrante erradikalak nagusitzen ari dira musulman praktikanteen artean. Duela hamar bat urte izan nintzen Marokon, Marrakechen hain zuzen, eta ez zait inoiz ahaztuko han ikusi

nuen estampa: 40 gradu markatzen zuen termometroak eta gizonezkoak mangutsik tabernetan zeuden bitartean beren freskagarriak hartzen, emakumezkoak ikusten nituen kalean zehar jantzi sendoz goitik beheraino estalita; benetan eszena gupidagarria.

2- Islamismo moderatua indartzen saiatu behar genuke eta estremistek ateak itxi. Neska-mutil musulmanak berdintasunean heztea da garrantzitsua. Nola adierazi mutilei matxista nazkagarri batzuk direla, ez direla nesken jabe, emakumezkoek eskubide berberak dituztela? Nola azaldu neskei portaera matxistak eta sexistak barnerratu dauzkatela, guztiz manipulatua daudela? Burkinia edo belo islamikoa erabiltzen duten emakumeei hitza eman behar zaie eta libertate osoz beren irizirik agertzen utzi.

3-Aurrerapausoak ematen ere ari dira zenbait herrialde musulmanetan. Milaka emakumezko ari dira borrokan beloaren kontrako kanpainak bultzatuz, nahiz eta horretarako bizia arriskuan jarri askotan. Baina aldi berean ikusten ari dira

Europar oso epel jokatzen ari direla menpekotasun negargarri baten ezaugarri diren jantzi horien kontra. Eta guztia, euroak galdu nahi ez dituztelako. Greziari buruzko erreportaia batean ikusten nuen lehenengo batean: emakume batzuk guztiz estalita ikusten ziren, begiak bakarrik agerian zituztela; arabiarrek ziren nonbait eta entrebistatuak esaten zuen jantzi hori debekatu gero gehiago ez zirela etorriko eta diru asko galtzeko arriskua zegoela. Dirudienez, giza eskubideen alde borrokatzea baino garrantzitsuagoa da dirurik ez galtzea. Jakin nahi nuke ze dezeptzioa, zenbateko desengainua den berdintasunaren alde lanean ari diren islamiar emakume askorentzat europarrok agertu dugun jarrera txepela libertate faltsu baten izenean. Guztiz traizionatuak sentitu behar dute.

Duela egun batzuk irakurri nuen artikulu batean desira hau agertzen zen: "oxala herrialde horietan urte gutxi barru emakume guztiek burkinia eraman beharrean burkinia jantzeko aukera izaten duten".

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Luis Aranalde** | Ilazki Gaintza | Maialen Unanue | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai

## Bergaran ere, "Gattunk"

**K**ilometroak ospatuko da igande honetan Bergaran. Jai honen 40. urtemuga izanik, aurreko edizioetako argazki, irudi, lelo edota egunkarietako albisteak erakusketa batean bildu dituzte, Kutxa Fundazioaren laguntzaz. 1977tik 2015era ospatu diren edizio guztiak islatuko dira bertan.

Bergarako Aroztegi aretoan izango duzue ikusgai, urriaren 2ra arte, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbatean, 12:00etatik 14:00etara eta



Bergarakoek ia hartu zuten Kilometroak jaiaren lekukoa Usurbilen.

18:00etatik 20:00etara. Eta igandean, 12:00etatik 14:00etara. Erakusketa ibiltaria izango da.

Urtebete barru Oñatin izango da ikusgai, Bergarako aurtengo edukiak batuko dizkiote.

### Aranzadi ikastolaren alde

Begarako Kilometroak 5 kilometro luze eta bost gune izango dituen ibilbidearen bueltan ospatuko da. "Demasa" lemapean, jaialdi mundiala, ahaztezina izatea nahi dute. Kilometroak egunez bildutako laguntza, 45 urte bete dituen Aranzadi ikastolara bideratuko da; eraikinaren obra finantzatzeko eskatutako mailegua ordaintzera. Egitaraua eta zirkuituaren berri zehatzago: kilometroak.eus



# Espazio publikoa berrantolatzeko prozesu partehartzailea

**N**olako Usurbil nahi eta behar dugun erabakitzeke, Hiria Antolatzeko Plan Orokorriari loturiko “Kale Irekiak” izeneko prozesu parte hartzaile berria abiatzera doa Udala. Oraingoan, Espazio Publikoaren Berrantolaketaz herritarrek zer dioten jaso nahi da.

Irailaren 28an aurkeztekoa zuten prozesua hilabetez luzatuko da. “Usurbilgo Udalak martxan jarri duen “Kale Irekiak” proiektuan lehendabizi nolako Usurbil nahi eta behar dugun erabakiko dugu herritarrok parte hartze bidez. Jarraian, teknikari adituek Plan Zuzentzailea idatziko dute herritarren ekarpenekin, hurrengo urteetan aurrera eramango diren proiektuen euskarria. Eta bukatzeko, herritarrek lehenetsunak finkatuko dituzte, Udalak horiek aurrera eramateko konpromisoa hartu baitu”, iragarri dute. Hainbat saio



**BERDINTASUN PLANAREN LANKETA MARTXAN.** Udalak agortutzat eman duen lehen Berdintasun Plana ebaluatu eta berria herritarrekin batera diseinatu nahi du. Lanketa, irailaren 21ean prozesu partehartzailearekin abiatu zen. Hurrengo hitzordua, urriaren 13an, 18:00etan Potxoenean.

parte hartzaile eta dinamiko antolatu ditu Udalak, auzoka eta eremuka. Haurren astea eta emakumeen topaketak ere iragarri dituzte, prozesu honen baitan. Honatx lehen saioen egutegia:

#### Urriak 3, astelehena

18:30 Batzarra Aginagako lu-

dotekan.

#### Urriak 4, asteartea

18:30 Batzarra Zubietako Kaxkape egoitzan.

#### Urriak 5, asteazkena

18:30 Batzarra Potxoenean.

Antolatzaila: Usurbilgo Udala.

## Gipuzkoa Zutik, plazan berriz

**D**onostiako Bulebarre- itzuli da Gipuzkoa Zutik mugimendua. Asanblada egin zuten irailaren 16an, eta ostiral honetarako, irailaren 30erako 18:00etan deitu dute hurrengo gune berean. Gogoan izan, erraus- tegiko lanak esleitzear dituzte eta urtarrilean hasi asmo dute eraikitzen. Panorama honen aurrean, hurrengo urratsak definitzeko deitu dute ostiral honetako hitzordua.

### “Ez dugu etsi behar”

Bulebarrean eginiko batzarraren aurretik, erraustegiari buruzko hitzalditxo eskaini zuen Joxe Mari Irazusta usurbildarrak.



Irailaren 16an batzarra egin zuten Donostian.

Gaia zertan den azaldu zien bertaraturikoei. Ekitaldi berean parte hartu zuen Itziar Bastarricka zubietarrak. Urteotan Herri Batzarrak herritarrekin batera erraustegiaren aurka egin duten lanketa azaldu zuen. “Zuei

esker, herriak beste bizipoza du. Haien (zubietarren) izenean eskerrak”, adierazi zien Bastarrickak Gipuzkoa Zutikeko kideei.

Aurrera begira lanean jarraitzeko deia egin zuen; “ez dugu etsi behar” zioen.

### Urriaren 5ean hasita emakumeentzako ahalduentze ikastaroa

“Emozioak eta emakumeen ahalduentzea: emozioak kudeatzen ikasten”, doako ikastaroa antolatu du Udalak. Saioak ostegunetan izango dira, urriaren 5ean hasita, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean. Pepa Bojok bideratuko du gaztelaraz eskainiko duen ikastaroa. Izen emateko, Parekidetasun Sailera jo:

■ 943 377 110

■ parekidetasuna@usurbil.eus

### Bilera Gaztelekuan

Ostegun honetan, irailak 29, 18:30ean Gaztelekuan. Proiektua eta instalakuntzak ezagutu eta argibideak jasotzeko aukera izango dute erabiltzaile berrien gurasoek. Gaztelekuan 12 urtetik aurrerako gazteek parte hartzen dute. Informazio gehiago: gaztelekua@usurbil.eus San Inazio kalea, 3 943 371 050

### Euskara eta aisialdiko diru-laguntzak

#### 2015-2016 diru-laguntzak

##### Euskara ikasteko

■ Jasotako eskaerak: 42.

■ Banatutako laguntza kopurua: 16.614,76 euro.

##### Begirale ikastaroak egin dituztenentzako

■ Jasotako eskaerak: 7.

■ Banatutako laguntza kopurua: 1.417,50 euro.

### Artisautza Azokan izena emateko epea zabalik

Aitzagak Artisautza Azoka antolatuko du azaroaren 1erako. Bertan parte hartzeko epea ireki berri dute. Izena emateko idatzi email bat artisautzaazoka@gmail.com helbidera. Urriaren 5a baino lehen.

# Herriaren alde egin zutenen omenez

Irailaren 17an, 80 urte atzerago, Francoren tropek Usurbil hartu zuten. 36ko Gerra betean ginen. Eta beste hainbat tokitan bezala, herri hau ere kolpatu zuten gertakari latz haiek. Urte haietako fusilatu, espetxeratu eta erbesteratu artean, behartutako lanak egitera kondenatu zituzten artean, errepublikarren frontean guztia eman eta bizia galdu zutenen artean ere bazen usurbildarrik.

Duela 10 urte oroimenerako plaka jarri zutenean egin moduan, tropa faxistek udalerrri honetan sartu zirela 80 urte bete ziren egunean haiek guztiak oroitu nahi izan zituen Aitzaga Elkarteak, Askatasuna plazan antolatutako ekitaldi berezian. Urte haietan gertaturikoaren ezagupen osoa izan ez eta izuagatik hainbat gauza isildu eta orduan jazotakoaren transmisio handirik egon ez arren, “ezagutzen ditugunak



Askatasuna plazan egin zen omenaldia, eta Joseba Tapiak eta Usurbilgo alkateak hartu zuten parte.

## IRAILAREN 17AN

**Tropa faxistek udalerrri honetan sartu zirela 80 urte bete ziren egunean haiek guztiak oroitu nahi izan zituen Aitzaga Elkarteak**

bederen gure herriarengatik egindakoa publikoki aitortzea merezi dutelakoan gaude”, zioten antolatzaileek. Horregatik, banan bana izendatu zituzten ekitaldian zehar.

Joseba Tapiak jarri zion doinua ekitaldiari. Xabier Arregi alkateak, gai honetan egiten ari den lanketarengatik Aitzaga Elkarteak zoriondu eta bide ho-

netan, oroimenean sakontzeko deia egin zuen. Duela 80 urteko gertakariez ez ahaztea, orduan jazotako orainari lotzea eskatu zuen. “Orduan gertatutako hori lotzea, jostea ordutik hona egin dugun ibilbidearekin. Euskal Herriaren borroka ezin baita ulertu, katebegi horien loturarik gabe”, Usurbilgo alkatearen esanetan.

## Borroka latzenetako bat, Txaldataxurren

36ko Gerrako borroka latzenetako bat etxe ondoan, Zubieta gainean, Txaldataxurren bizi izan zen, orain justu duela 80 urte.

Modu oker batean guneari Estenaga deitzen ziotela jabetu zirenean, okerreko izen hari lotuta zegoen informazioa biltzen hasi zen Islada Ezkutatuak, memoria his-

torikoa berreskuratzeko lanean dabilen Lasarte-Oriako taldea. Hamarkada luzez gai honen inguruan egon den desinformazio prozesua salatu zuen Joxa Muguruzak, Sutegin. 36ko Gerra gisa ezagutzen dugunak, estatu kolpe batek abiarazi zuela nabarmendu zuen. Eta urte hartako uztaileko estatu kolpe haren eragina paira-

tu zuela gerora Gipuzkoak. Kosta zitzaizen altxatuei inguru hau garaitzea. “Indar eta amorru handiz defendatu zen” inguru hau, Muguruzaren esanetan. Defentsarako fronte giltzarria izan zen inguruotakoa eta hau desegin zutenean, Gipuzkoa galdu zela zioen.

Orduko begi bistako arrastoak badira Txaldataxurren.



36ko gerraren arrastoak oraindik begibistan dira Txaldataxurren.

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
600 024 825

# Oroimenerako eskubide eta betebeharra



Lourdes Errazti, Pako Etxeberria eta Joxa Muguruzaren hitzaldian jende asko batu zen.

Zer hitz egina, ikertua, eta azaleratua bada, harkada luzez isilarazia izan den euskal herritar askoren sufrimenduen inguruan. Argi utzi zuen Aitzaga Elkar- teak irailaren 15ean Sutegin antolatu zuen hitzaldian.

Sutegi askotan ez bezala bete zuen “Memoria eta az- tarnak”, 36ko Gerraren 80. urtemugaren testuinguruan antolaturiko hitzaldiak. Ma- haiaren bueltan, Aranzadiko bi kide bildu zituzten: Lourdes Errazti eta aurkezpen askorik behar ez duen Pako Etxeberria. Haiekin, Lasarte-Orian memo- ria historikoa berreskuratzeko lan itzela egiten ari den Islada Ezkutatuak taldeko kide Joxa Muguruza.

Begi bistako interesa sortzen

du gaiak. Etxeberriak berak zioen, “gainezka” egin diela duten lan kargak. Desagertuak segitzen dutenen bila segi, hilo- biak aurkitu, azaleratu eta iden- tifikazio lanak burutzen dabil- tza azken 16 urteotan. Gaiak jendartearen harreran izandako bilakaera nabarmen aldatu dela aipatzen zuen Etxeberriak Su- tegin.

## Memoria historikoa, interes sozialekoa

Mugimendu ekologistarekin parekatzen zuen, memoria historikoaren alde lanean di- hardutenena izaten ari den bi- lakaera. Garai batean baztertu eta antisistematzat jotzen zi- ren ekologistak. Etxeberriaren esanetan, denborarekin ohartu dira, agintariak esaterako, “in- gurumenaren baloreak interesa

duela”. Memoria historikoaren gaia ere antzeko bidea jorra- tzen ari da bere ustez. “Interes sozialekoa” bilakatu da.

## Paco Etxeberria: “Ezin gara inpartzialak izan”

Bide horretan, guztiok dugu gure ardura, guztiona da gaiak dagokion tokia izateko eran- tzukizuna. “Biktima guztiok dute memoriarako eskubidea. Eskubidea existitzen bada, be- tebeharra baita. Gainerakoona da, memoriaren betebeharra. Gutako bakoitzari dagokio zerbait egiten ahalegintzea”, Etxeberriaren esanetan. Argi zioen, giza eskubideen urra- keten aurrean, gaurkotasun han- diko gai honen aurrean, “ezin gara inpartzialak izan”. Memo- ria historia iraganaz soilik ez, “orainaz ari da hitz egiten”.

## Emakumeek jasandako errepresioari buruz ezer gutxi dakigu

Memoria historikoa berres- kuratzeko lan horretan, gako garrantzitsuena, lekukotzena dugu, Lourdes Erraztik Su- tegin nabarmentzen zuenez. Ezinbestekoak haien lanean. “Oraindik garaiz gaude”, oroitarazten zuen. Lekuko- tza gehiago biltzeko garaiz. Lekukotza hauek eraman ditzakete eta, urteotan egin dituzten aurkikuntzetara. 16 urteko tartean, 500 hobituk gora eta 7.700 gorpuzkin at- era dituzte.

Biktimen %3-4 emaku- meak direla ere azpimarratu zuen. Eta gai honi buruz, emakumeek jasandako erre- presioari buruz ezer gutxi dakigula. “Egiteko asko dago alor honetan”, zioen Errastik. Bi biktimizazio pairatu behar izan baitituzte emakumeek; senidea erahiltzearena eta haien aurkako errepresioa.

Eraztun, botoi, erloju... Identifikaziorako pista ugari eman ditzakete. Alde horre- tatik, Eusko Gudarosteko ki- deek identifikazio plaka bat zeramaten, eta “hori zeinena den jakin dezakegu”.

Urteotan aurkitu dituzten hobi asko, herrien kanpoal- dean eta bide ertzean aurkitu izan dituzte. Azaleratu duten errealitatea, oraindik orain, neurri handi batean, lurpean isildua segitzen duen sarraski handi batena da.

**USURBIL AUTOAK**  
 ·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SÁLMENTA

**Ford**

**SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

**zerbitzu ofiziala**

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

**Kima**

MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

# “Hartu hitza, hitza har dezagun” lelopean lip dub herrikoia grabatuko dute urriaren 16an

Urriaren 21, 22 eta 23an hitza hartuko du herri honek, erraustegia-ri buruz erabakitzeke aukera izango du, Erraustegia Erabakia herri plataformak deitu duen herri galdeketa. Herritarren parte hartzea sustatu nahi dute, eta giroa aldera, aste-bete lehenago, urriaren 16rako “Lib Dup” ekimena antolatu dute, “erraustegia parte hartu eta hartu hitza” aldarripean.

Jendetsua izatea nahi duten hitzordu honetan bideo-klip bat grabatuko da, Fermin Muguruzaren “Hitza har dezagun” abestiarekin. Haur, gazte, eta heldu, herritar oren parte hartzea erakarri nahi dute. Egitekoa erraza izango da; urriaren 16an goizeko 11:00etan Kaxkora gerturatu. Antolatzaileek zehaztuko duten ibilbide baten baitan kokatu beharko da jendea. Eta hortik aurrera, ekitaldia grabatuko duen kameraren zain egon. Kamera gerturatzen ari dela ikustean, antzeztu, dantza egin, abestu, musika instrumenturen bat jo, etxetik ekarritako objekturen bat erakutsi, haize errota koloretsuak esaterako.... “bakoi-tzak nahi duena egin ahalko du”, iragarri dute antolatzaileek. Irudimena lantzeko gonbita luzatzen digute.



Urriaren 16an, goizeko 11:00etan hasiko da lip dub-aren grabaketa. Irudimena lantzeko gonbita luzatzen dute.

## URRIAREN 16AN

**“Haur, gazte, eta heldu, herritar oren parte hartzea erakarri nahi dute. Egitekoa erraza izango da; urriaren 16an goizeko 11:00etan Kaxkora gerturatu. Fermin Muguruzaren “Hitza har dezagun” abestiarekin grabatuko da lip dub-a”**

## Parte hartzea sustatzeko

Lehenbizi, entsegu saioak egingo dira eta segidan egingo da behin betiko grabazioa. “Animatu eta hartu hitza!” gonbita luzatu du Erraustegia Erabakia herri plataformak. Antolakuntzaren aholku bat; bideo-klipa grabatzeko baliatuko den Fermin Muguruzaren “Hitza har dezagun” abestia ezagutzen ez duenak, ikasten joateko deia egin dute.

## Kantuan lehenik, bozka bidez gero

Ikasterraza dela nabarmentzen dute Erraustegia Erabakia herri plataformatik. Eta abestia bera ezin egokiagoa da zalantzarik gabe, bete nahi dituzten helburuei begira. Ate joka dugun herri galdeketa begirako herritarren parte hartzea sustatu nahi dute. Herritarrak erraustegiaren inguruan hitza hartzerantz animatu. Kantuan edota dantzan lehenik; bozka bidez gero.

# Herri galdeketa begirako agenda

## Irailak 29, osteguna

■ 19:00 Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldearen (OEIT) hitzaldia Sutegin. Hitzlariak: Xabier Mitxelena familia-medikua eta Joxe Ramon Furundarena mediku hematologo usurbildarra. Galderak egiteko tartea egongo da.

## Urriak 16, igandea

■ 11:00 “Lib Dup” grabazioa Kaxkoan.  
■ Zehaztasunak: lehenbizi entsegu saioak egingo dira, eta segidan, grabazioa. Norberak, dantza egin, abestu, antzeztu, edota nahi duena egin ahalko du.

## Urriak 21, 22 eta 23

■ Erraustegiari buruzko herri galdeketa Usurbilen.

## Informazio gehiago:

■ [erraustegiaerabakia.wordpress.com](http://erraustegiaerabakia.wordpress.com)  
■ [erraustegiaerabakia@gmail.com](mailto:erraustegiaerabakia@gmail.com)  
■ Twitter: @U2erabaki  
■ Antolatzailea: Erraustegia

Erabakia Herri Plataformak.

## Kamisetak salgai dira oraindik

■ Erraustegia Erabakia herri plataformak urrirako deitu duen galdeketa diruz laguntzeko kamisetak salgai NOAUA! K.E.-ren egoitzan.





SANPRAIXKU  
2016

*gehigarri berezia*





Aginaga eskolako  
ikasle eta  
irakasleek jai  
zoriontsuak opa  
dizkizuegu!




**ONDO PASA  
SAN PRAIXKUAK!**

E /S AGINAGA  
N- 634 P.K 7,6 AGINAGA  
[www.gureakzerbitzuak.com](http://www.gureakzerbitzuak.com)



**TXAPARTEGI**  
harategia 



*bertako haragia*

*ondo pasa jaietan!*

**AGINAGA · 943 361 907**

José María Larburu  
Garraiatzailea

garraioak  
**larburu**  
guarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA



943 36 17 35 · 656 791 277

# Oilasko biltzeko ohitura, bizirik eta indartzen

**T**radizio luzea dute abiatzear diren Aginagako jaiek, eta jaietako zenbait ekitaldiek ere bai. Oilasko biltzera irteteko ohiturak esaterako. Larunbatean ospatuko da irteera. “Animatu dadila herri osoa oilasko biltzera, jai giroa etxe guztietara zabaltzeko”, animatzen dute Jai Batzordetik.

Ekitaldia indartzearen aldeko apustua egin dute aurten. Urriaren 1ean, 05:30etan gosaldurako, ordu erdi beranduago irteten eta etxez etxe egingo duten biraren baitan, haur, gaztetxo eta gurasoak ere festara batzea nahi dute. Horretarako hitzordua ere finkatu dute, eguerdiko 12:00etan Mapilen. Festak prestatzeko Jai Batzordeak ekaina amaieran deituriko bileran jasotako proposamena dugu honakoa.

## Usadio zaharra

Argi denez, oilasko biltzera irteteko ohiturak bizirik darrai, hamarkada luzeen ostean. Ikusi bestela, ondoko irudia. Duela 29 urtekoa da, 1987an atera zuten. Jaietan zen Aginagan, oilasko biltzera ateratako



Urriaren 1ean goizeko 5:30ean abiatuko dira oilasko biltzailleak. Argazkian, 1987ko koadrila.

### ASPALDIKO OHITURA

**“Argazkikoa oilasko biltzera ateratako taldea duzue. Lagun bat baino gehiago ezagunak izango zaizkizue, ziur”**

taldea duzue. Lagun bat baino gehiago ezagunak izango zaizkizue, ziur. Tartean, sorterrira

ituzli berri den aginagar bat ere ageri da. Bi trikitalari gazte ikus ditzakezue. Ezkerrekoa, Nerea Gozategi eta eskuinekoa Edurne Maioz da. Bi heldu ageri dira eskusoinuarekin; bat Balentin “Zialtzeta” da. Panderoleja, Gaizka Gozategi.

Zutik ageri direnak orain. Ezkerretik hasita, Andoni Odriozola, Antton Beloki, Mari Jose Bereziartua, Joxe Mari Orbegozo “Goierrri”,

Jexux Alkorta, Marilu Beloki, Xabier Aranburu “Xomorro”, Lontxo Zubiria, Juanjo Zapirain eta Miren Bruño dituzue. Behean, eserita, ezkerretik hasita; Dolo Errasti, Joxe Jaber Furundarena, Juanjo Lizarza, Joxe Ramon Rezola, Tomas Bereziartua, Montse Padrones, Joxe Ramon Furundarena, Joxetxo Larburu eta Koro Rezola. Koadrila bikaina!

# 1964ko jai egitaraua, garaiko egoeraren isla

**A**ginagako Elizan garbitasun lanak egiten hasi eta hara zer aurkitu zuen Maria Angeles Arrutik. Duela 52 urteko, 1964ko festako egitaraua. Erdaraz noski. Solemnitate osoz aurkezten dizkigu orduko San Praixkuak. “Usurbilgo Aginagako Parrokiako Patroi titular Asisko San Frantziskoren omeneko jai egitaraua” dio eskuorriak.

Elkarlanean antolatu zituzten, San Luis Gonzaga izeneko kongregazioaren, Aginaga Kirol Elkartearen eta “Usurbilgo Uda-

laren oniritzi eta babesaz”.

### Erromeria, 23:00ak arte


Orain bezala, orduan ere, bi asteren bueltan ospatzen zizuten San Praixkuak. Garai hartan, erlijiozko ekitaldiek pisu nabarmena zuten egitarauan; errosarioa eta salbea goizeko 07:00etan, hildakoen omeneko meza, urtean zehar izandako irabazien eskertza meza... Donostiako Lauko izeneko orkestra kontratatu zuten, lau egunetarako. Erromeririk gaueko 23:00ak baino lehen amaitu behar zuten.

### Bitxikeria gehiago

1964an seigarrenez ospatu zuten Pultsularien Txapelketa. Edota ezkondu eta ezkongabeen arteko sokatira txapelketa, gaztetxoaren arteko olinpiadak...

Ordutik jaiak aldatu dira noski, baina argi denez, sustrai sakonak dituen ohiturak ere gorde eta bizirik mantendu dituzte.

Oilasko biltzailleekin batera, Usurbilgo txistularien kalejira, buruhandiak, pilota partidak, bertsolariak, dantzariak, plater tiraketa txapelketa ospatzen ziren. Milesker egitaraua eta



Garai hartan, erlijiozko ekitaldiek pisu nabarmena zuten egitarauan.

argazkia utzi eta bertan ageri direnen zerrenda osatzen lagundu diguzuen Edurne Maioz eta Maria Angeles Arrutiri.



# Zaparra, udako bira borobiltzera

**L**ehen urtea egin du oholtza gainetan, Zaparra rock talde usurbildarrek. Udako bira, Aginagako jaietan borobilduko du urriaren 6an, Odolaren Mintzoa eta Kezka usurbildarrekin. Koadrilan osaturiko taldea sendotzen doa denborarekin. Aginagako hitzorduaren ostean, kontzertuei begirako prestaketetan baino talde barrura begira lan egin nahi dute, kantuak sortzen ahaleginduz.

## NOAUA! Nondik dator taldearen izena, Zaparra?


**Zaparra.** Kontzertu bat genuen eta izena behar genuen. Entsegu batean izenak botatzen hasita bururatu zitzaigun. Zaparra edo zaparrada zalantzan izan ginen. Azkenean zaparra hautatu genuen. Herriko jendeak zaparra erabiltzen du egurra bezala. Hori ere gustukoa izan genuen. Zaparra, egurra.

## Koadrilatik osatu zen taldea.

Denok batera ibiltzen gara koadrilan. Beste taldeetan jozten genuen. Arrazoi ezberdinegatik talde horiek ez ziren aurrera atera, bidean geratu ziren. Taldea osatzea erabaki genuen. Iazko udan hasi ginen entseatzen eta Atxegaldeko jaietarako esan ziguten ia kontzertua eskainiko genuen. Hortxe hasi zen dena, iazko abuztu amaieran.

## Lehen emanaldi hura nola oroitzen duzue orain, urtebeteko ibilbidea osatu ostean?

Ondo, urduri. Bertsioak jo genituen. Jende asko ez zen egon, baina egon zirenak oso gustura. Horrek ere aurrera segitzeko motibatu zigun. Uda osoan egon ginen topera prestatzen eta gustura geratu ginen. Orditik bi kanta sortu ditugu. Bertsioekin ere hobekuntza egon da. Aurten berriz



Iazko udan hasi ziren entseatzen. Atxegaldeko jaietan jo zuten gero. Hortxe hasi zen dena.

## URRIAREN 6AN, GAZTE EGUNEAN

**“Herriko beste bi taldeekin, Kezka eta Odolaren Mintzoarekin batera arituko gara, eta gustura. Polita izango da aniztasun hori ikustea. Gau ederra izango da”**

kontzertua eskaini dugu Atxegaldeko jaietan. Bietan egon direnek esan digutenez, asko nabaritu da aldaketa, bai gure kantekin eta eskenatoki gaineko jarreran.

## Bi kanta sortu dituzue. Zer diote, taldearen nortasuna definitzen dute?

Sortu dugun bigarren abestiak nortasunaz hitz egiten du. Askotan hitz egin dugu gure estiloari eusteaz eta gustatzen zaigun jendea erakartzeaz. Ez dugu jendearen baldintzapean aritu nahi.

## Udako bira zer moduz joan zaizue?

Anoetako Gaztetxean esate-rako oso gustura aritu ginen.

Ez genuen uste, baina jendetza bildu zen. Kontzertua eskaintzen bigarrenak ginen. Jendea motibatuta, batzuk jauzika, talde kide bat sorbalda gainean hartu zuten. Iaz hasi ginen Atxegaldeko jaietan. Gero Usurbilgo Gaztetxean Izeberg taldearekin batera aritu ginen, Sagardo Egunean, Santixabéletan, Astigarragan jo genuen, Atxegaldean berriz ere, Anoetan eta Santuenean. Inguruko jaietan jo dugu gehienbat, ateratzea ere zaila egiten baitzaigu. Orain Aginagan joko dugu.

## “Eliza Zaharrak xarma berezia du” Hurrengo kontzertua Aginagan. Hau ere oholtza berria.

Herriko beste bi taldeekin, Kezka eta Odolaren Mintzoarekin batera gainera, eta gustura. Herriko jendea animatuko da. Giroa egotea espero dugu. Eliza Zaharrak ere xarma berezia du. Jendea esan animatzeko eta etortzeko ikustera. Herriko hiru talde garelako, hiru estilo ezberdin. Polita izango da aniztasun hori ikustea. Gau polita izango da.

## Eskertza

Mikel Romerok (bateria), Jon Guadixek (kitarra eta abeslaria) eta Jon Mikel Azpiatzuk (gitarra eta abeslaria) osatzen dute Zaparra. Laugarren kide bat ere izan zuten, Aitor Zaldua. Gerora taldea utzi behar izan zuena eta haren lekua hartu zuen Mattin Iribar usurbildarrek. “Asko lagundu digu. Azken lauzpabost kontzertuak berarekin eskaini ditugu”, adierazi digute Zaparrakoei. Mattinek beste musika talde bat du eta kontzertu kopuru mugatu bat baino ez zuen hitzartu Zaparra taldekoei. Baina gustura segitzen du taldean. “Poztasun handia eman digu, plus bat ematen dio taldeari”, adierazi digute. Bestalde, Itoitz Rodriguezen aipamena egin nahi dute. “Hasiera batean taldea berarekin osatu behar genuen, berak izan behar zuen abeslaria. Baina AEB-tan ari da ikasten. Kontzertu askotan igo da kanta batzuk abestera”, gogorarazi digute.

**Eiza denda**

Ondo pasa **SAN PRAIXKUAK!**

Erribera 8, Aginaga  
943 36 12 06

**sekaña ERRETEGIA**



AGINAGA • ☎ 943 362 773

**ETXEESTE**

**Jatetxea**

Eguneko bazkariak

*ondo ibili jaietan !!*

**943 36 27 40**

Ondo pasa San Praixkuetan!



**KARABANAK**  
Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua  
24h hibernatzeko zerbitzua  
Alokairu zerbitzua

**NAUTIKA**  
Salmenta, konponketak eta mantenua  
24h hibernatzeko zerbitzua  
Alokairu zerbitzua

Intxurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660  
www.noraianautika.com - info@noraianautika.com



# San Praixku jaiak, egitaraua

## Irailak 29, osteguna

■ 20:00 XIV. Gizonezkoen pala txapelketako finala.

## Irailak 30, ostirala

■ 22:00 Gazteen eskuzko pilota partida.

■ Ondoren, XIV. Gizonezkoen eskuzko pilota txapelketako finala.

## Urriak 1, larunbata:

### Oilasko Biltzaileen

#### Eguna

■ 05:30 Oilasko biltzaileen go-saria.

■ 06:00 Oilasko biltzaileen irteera.

■ 12:00 Herriko haurrak eta animatzen direnak oilasko biltzaileekin batuko dira Mapilen.

■ 14:30 Oilasko biltzaileen bazkaria Sekaña jatetxean.

■ 17:00 Haurrentzako Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria

ludotekan.

■ 18:00 Buruhandiak.

■ 21:00 Herri afaria: txartelak 20 euro (helduenak) / 12 euro (haurrenak) salgai alde aurretik, Aitzagan, Arrate egoitzan.

■ 01:00 Erokomeri frontoian.

■ 04:00 Dj Gurru Eliza Zaharrean.

## Urriak 2, igandea

■ 09:00 Tiroplatoa.

■ 19:00 Sardina eta sagardo banaketa herriko plazan, trikitilari-erik girotua.

■ Bitartean, XXXIV. Toka Txapelketa.

## Urriak 4, asteartea:

### San Praixku Eguna

■ 11:00 Meza nagusiaren ondoren, jubilatuen hamaiketako eta bertsolariak Aginaga Sagar-dotegian.

■ 18:00 Herri kirolak.

■ 18:30 Sagardo ezberdinen

dastaketa eta piper jana, trikitilari bikainez alaitua.

Bitartean, buruhandiak.

19:30 Patata tortilla lehiaketa.

20:00 Pintxo potea.

## Urriak 6, osteguna:

### Gazte Eguna

■ 21:00 Gazte afaria.

■ 00:00 Kontzertuak Eliza Zaharrean: Kezka, Odolaren Mintzoa eta Zaparra.

## Urriak 7, ostirala:

### Umeen Eguna

■ 10:00 Jolasak frontoian.

■ 13:00 Bazkari goxo-goxoa Eliza Zaharrean.

Arratsaldean, puzgarriak plazan, primerako txokolate jana eta buruhandi bizi-biziak!

■ 19:00 Martxan Go taldearekin dantzan jartzeko saioa.

■ 21:00 Bertso-afaria Eliza Zaharrean: Egaña eta Lizaso. Txartelak 18 eurotan salgai alde au-

rretik: Aitzagan, Arrate egoitzan.

■ 00:00 Erromeria Eliza Zaharrean: Oharkabe Taldea.

Ondoren, Karaokea.

## Urriak 8, larunbata:

### Gaupasa Eguna

■ 16:00 XXXV. Mus Txapelketa herrikoia (inskripzioa, 15:30-16:00 artean. Oharra: bikotekide batek aginagarra izan behar du).

■ 18:00 Gorriti.

■ 19:00 Poteoa Elektrotzarangarekin.

■ 00:30 Kontzertuak frontoian: Gozategi, Laiotz.

■ 04:00 Aros DJ Eliza Zaharrean.

## Oharrak:

■ Herriko jubilatuen eskulanak ikusgai apaizetxean, urriaren 1ean, 4an, 7an eta 8an.

■ Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.



Mutiozabal etxea 17, AGINAGA 943 36 10 81 [atxega@atxega.com](mailto:atxega@atxega.com) [www.atxega.com](http://www.atxega.com)






VDA. E HIJOS DE  
**JERONIMO  
IZAGUIRRE**<sup>B.L.</sup>



Ondo pasa  
jaietan!



943 362 146 AGINAGA  
[www.mariscosizaguirre.com](http://www.mariscosizaguirre.com)



Ondo pasa  
San Praixkutan!



**Angulas Mayoz s.l**

AGINAGAKO ANGULAK  
BEREZKO BIBEROAK



TOKI BERRI Z/G AGINAGA 943 36 15 94





**aginaga**

*San Praixku zoriontsuak opa dizkizuegu!!!*

## Sagardotegia



**URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA TXOTXETIK!**

Berezitasuna; Sagardotegiko menua  
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.  
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...  
Ezkontzetarako jangela egokitua.  
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfn-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

## HOTEL BERRIA AGINAGAN

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak: aire girotu eta berogailua, TV, WiFi, bainugela konpletoa...  
Diseinu moderno eta funtzionala

**Energia berriztagarritz** (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko. Lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat leku ezinhobea.

Tfn-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

## Hotela \* \*




Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- \* NOAUA! \* Udaletxea
- \* Kiroldegia \* Saizar \* Eroski City
- \* Aginagako Arrate taberna
- \* Zubietako Alamandegi taberna

Edo deskargatu ezazu [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)-etik!


tren eta autobus

ordutegia 16/17

# EH Bilduk batu zituen bozka gehien Usurbilen

<b>EH BILDU</b>	<b>1.569</b>	<b>%52,95</b>
<b>EAJ-PNV</b>	<b>704</b>	<b>%23,75</b>
<b>ELKARREKIN PODEMOS</b>	<b>369</b>	<b>%12,45</b>
<b>PSE-EE/PSOE</b>	<b>156</b>	<b>%5,26</b>
<b>PP</b>	<b>79</b>	<b>%2,66</b>
<b>GANEMOS:SI SE PUEDE</b>	<b>27</b>	<b>%0,91</b>
<b>C´S</b>	<b>26</b>	<b>%0,87</b>
<b>PACMA/ATTKAA</b>	<b>15</b>	<b>%0,50</b>
<b>Partido Familia y Vida</b>	<b>7</b>	<b>%0,23</b>
<b>Libertate Nafarra</b>	<b>6</b>	<b>%0,20</b>
<b>Recortes Cero-G. Verde</b>	<b>5</b>	<b>%0,16</b>

Errola	4.686
Parte-hartzea	%63,64
Abstentzia	%36,36



## Antzerkira jauzi eginda

Izen eta formatu berriekin ospatu dira aurtengo antzerki egunak Usurbilen. Muxurbilek eta EHAZEK antolatutako "Jauzi!" zikloaren baitan, plan bikoitza izan genuen aurreko ostegunean herriko tabernetan; pintxo-potea eta herriko musikarien eskutik, kalejira batek lotutako antzerki pieza laburrak eskaini zituzten etxeko antzezleek. Idoia Torregarai usurbildarrek, Xabier eta Martin Etxeberriarekin batera, umoreaz jardun zuten biharamunean. Honez gain, klown ikastaroa, "Zerura eroria" eta "Putinen Guardasola" antzezlanak eskaini dira.



**AGINAGARA JAUZI.** Usurbilen izan diren antzerki egunek Aginagara jauzi egin zuten irailaren 24an. Egun osoz ospatu zuten Eskola Txikiaren Eguna. Haurrentzako zirku tailerra antolatu zuten Eliza Zaharrean.



Jauzi! jardunaldien baitan, antzerki pieza laburrak eskaini zituzten. Herriko musikarietien ibili ziren batetik bestera kalejiran. Argazki gehiago: noaua.eus.





**Klik! batean**

## Parking

Dema plazak parking itxura hartu zuen igandean, Bizipoza jaian. Zalaparta aldamenean zen, frontoian. Badakizue: pailazoak non, umeak han.

Argazkia: Ion Markel





# Motxianeby esketx lehiaketa, “ausartu parodia egi bihurtzen”

Orsoaldeko eta Buruntzaldeko udalek antolatutako bi eskualdeotako 12-16 urte arteko ikasleei zuzenduriko txapelketa da Motxianeby. Gai librean, euskaraz, nahi adina lan aurkeztu ahaliko dira banaka edo taldean. Lan originalak beharko dute izan, lehendik aurkeztu gabek. 50-70 segundu artekoa izan beharko du esketxak.

Abesti edo doinuren bat erabiltzekotan, Creative Commons edo euskaraz abesten duen talde euskal herritar batena baliatu. Ondo adierazi izenburua eta herria.

## Lanak nola bidali

Aurkeztu nahi diren lanak 608 170 384 telefono zenbakira bidali beharko dira whatsapp bidez, edo kaixo@motxianeby.eus helbidera WeTransfer edo



Argazkian, iaz Buruntzaldean sarituak izan ziren ikasleak.

Dropbox bezalako zerbitzuak erabilita.

## Noizko aurkeztu lanak

Urriaren 10etik azaroaren 18rako epean aurkeztu behar dira esketxak. 300 eta 200 eu-

roko sariak banatuko dira eskualde bakoitzean. Eta herri bakoitzeko lehiakide bozkatuek 50 euroko saria jasoko du.

“Ausartu parodia egi bihurtzen!”, luzatu dute gonbita antolatzaileek. Informazio gehiago, motxianeby.eus atarian duzue.

## Landaberri Ikastolaren urteurren ekitaldiak

50 urte bete ditu hastapenetan Usurbilgoa eta hainbat usurbildarrena ere izan zen Landaberri Ikastolak. Mende erdia ospatzeko kultur hamabostaldi betean dira egunotan Lasarte-Orian. Egunotarako proposamenen artean, ikasle ohiek idatzi duten antzezlanaren estreinaldia iragarri dute.

### Urriaren 1era arte

■ Erakusketa udaletxeko Mercero aretoan. Ordutegia: egunero 17:30-20:00 artean eta larunbatetan 11:00-13:00 artean. “Urte hauetan zehar atara ditugun argazki eta eskulan ezberdinak ikusteko aukera”.

### Irailak 30, ostirala

■ 22:00 Antzerkia kultur etxean:

Landaberri Ikastolan ibilitako ikasle ohiek idatzitako obra da.

### Urriak 1, larunbata

■ 12:00 Lasarte-Oriako udal musika eskolako trikitilariak, Landaberri DBH-n hasita.

■ 14:00 Bazkaria, Mitxelinen.

Antolatzailea: Landaberri Ikastola.

## Joseba Larratxeren komikigintza tailerra, Hitz Ahoren eskutik

Iaz bezala, ikasturte berri honetarako ere komikigintza tailerra antolatu du Hitz Aho Udaregi Ikastolako Guraso Elkarteak. LH5etik hasi eta 16 urte artekoentzat. Urriaren 20tik ekainaren 15erako iraupena izango du. Aste-rokoa izango da. Saioak ostegunero izango dira, 17:30-19:00 artean Potxoenean. Joseba Larratxek bideratuko du ikastaroa. Izen emateko urriaren 10era arteko epea izango dute interesdunek. Inskripzio orriak Sutegi udal liburutegian eskuratu ahaliko dituzue. Prezioa: 20 euro.

## Dantza Taldeen ordutegiak

Orbeldi Dantza Taldeak finkatuak ditu, urriaren 3an abiatuko duten ikasturte berrirako klaseen ordutegiak. Honatx:

- LH1, ostirala: 17:30.
- LH 2, osteguna: 16:30.
- LH 3, ostirala: 18:30.
- LH 4-5, osteguna: 18:30.
- LH 6-DBH1, ostirala: 18:00.
- DBH 2, asteazkena: 16:30.
- DBH 3, ostirala: 16:15.

### Helduen saioak:

- Dantza garaikidea: astelehena, 19:30-21:00.
- Plaza dantzak: asteazkena, 19:30-21:00.
- Dantza tradizionalak: astelehen eta asteartea, 19:00-21:00.



EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITAR TEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)



JUANTXO

BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA



# Sarituak, NOAUA! bazkide izateagatik



Jon Argoteri Aisia Hotelean egonaldia egokitu zitzaion, eta Xabier Iribar eta Karmelo Manterolari otordu bana, Olarrondo eta Atxega jauregian hurrenez hurren.



Azken aldian sarritan errepikatu dizuegun arren, beste behin azpimarratu beharrea gara; NOAUA!ko bazkide izateak saria dakar. Ikusi bestela ondoko argazkiak. Udako oporraldi aurretik egin genuen zozketan saritu genituen hiru

NOAUA!kide dituzue segidan: Karmelo Manterola, Xabier Iribar eta Jon Argote. Zorionak! Olarrondon eta Atxega jauregian bina lagunentzako otordu bana, eta Aisia Hotelean egonaldia irabazi zituzten hurrenez hurren. 20 urte bete berri dituen kultur elkarte honetako

kide gehiago saritzen jarraituko dugu udazken honetan. Adi beraz, hurrengo zu izan zaitezke eta! NOAUA! kide ez ez bazara, etorri kultur elkar-teko egoitzara eta segituan tramitatuko dizugu, begi bistako onurak dakartzan bazkidetza. Animatu eta zorte on!

## Udajolaseko arropa eta argazkiak

Udaleku irekietan parte hartu zuten haur eta gaztetxoek gurasoei zuzenduriko oharra. Seme-alaben arroparik galdu bazenuten, etorri NOAUA!ko egoitzara urriaren 11 baino lehen, ordutegi honetan: astelehenetik ostiralera, goizez, 09:00-14:00 artean, edota arratsaldez, 16:00-19:00 artean. Bertan ditugu, Udajolasen utzitako arropak. Bide batez,



NOAUA!tik pasa arropa galdua edo argazkiak eskuratzera.

udalekuetako argazki bilduma osatu da. Argazkiak eskuratu nahi dituzuenok, NOAUA! Keren egoitzara etorrita eska ditzakezue (epe horretan ere).

## Etxekoak, Irati Xtrem proban



30 usurbildarrek parte hartu zuten irailaren 24an, Irati Xtrem BTT proban. Bidali diguten argazkian dituzue herritarrak. Koadrila ederra osatu zuten.

### OEIT mediku taldekoen hitzaldia

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko (OEIT) bi kideek hitzaldia eskainiko dute irailaren 29an, 19:00etan Sutegin. Xabier Mitxelena familia-medikuak eta Joxe Ramon Furundarena mediku hematologo usurbildarrek. Hiru ordu laurdeneko hitzaldia izango da, euskaraz. Eta gero, galderak egiteko tartea egongo da. Hala berri eman diote NOAUA!ri, ekitaldia antolatu duen Erraustegia Erabakia herri plataformatik.

### Bisita gidatua, arrakastatsua

Usurbilek euskal kultura garaikidearen susperraldian jokaturako papera ezagutaraztea zuen helburu, Udalak irailaren 17an antolatu zuen "Harria hitz" bisita gidatuak. Taldetxo bat Usurbilgo altxor ezkutuak ezagutzen aritu zen, altxorren egileen eskutik. Ibilaldia Zumetaren tailerren amaitu zuten.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**EROSKI/city**

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**Otar-Goxo**  
Elkargaiak

Zubiaurrenea, n°2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

# 2-12 urteko haurren gurasoek lehentasuna izango dute euskalduntze ikastaroan

Aurreko astekarian aurreratu genizuen, familia barruko transmisioan eragiteko gurasoentzako euskalduntze ikastaroa antolatu dutela elkarlanean, Etumeta AEK euskaltegiak eta Udarregi Ikastolak, Usurbilgo Udalarren laguntzaz. Egitasmo honen sustatzaileek ikastaro berri honen inguruko xehetasun gehiago eman dizkigute.

Azaroaren 14an hasi eta maiatzera arte luzatuko da. 100 orduko iraupena izango du. Astean bi orduko bina klase eskainiko dira, Udarregi Ikastolan. Ordutegia aukera izango da, goiz edo arratsalde. AEK-ko irakasleek bideratuko duten ikastaroan, “2-12 urte arteko haurren gurasoek izango dute lehentasuna, taldekatzeko orduan”. Ikastaroko prezioa 100 eurokoa izango da. Euskaltegiko gainerako eskaintzan irailaren 30era arteko epea finkatu da matrikulatzeko.

Ikastaro berri honetan izen emateko tartea aldiz, urriaren 28ra arte luzatuko da. Gero,



Azaroaren 14an hasi eta maiatzera arte luzatuko da.

## KONTXAKO BANDERA

**“100 orduko iraupena izango du ikastaroak. Astean bi orduko bina klase eskainiko dira, Udarregi Ikastolan”**

izena eman duten gurasoei, azaroaren 3an mailaketa frogatzen egingo zaie Udarregi Ikastolan. Izena emateko txarte bat osatu behar da. Txartel hori

zuen datuekin osatu; izen abizenak, haurren izen abizenak eta gela, ikastaroan parte hartu nahi duenaren euskara maila... zehaztu eta Udarregi Ikastolara edo Etumeta AEK euskaltegira eraman.

## Diruz lagundua

Gainerako ikastaroak bezala, honako hau ere Usurbilgo Udalak diruz lagunduko du. Gogoan izan, doakotasunaren bidean sakontzeko apustua egina duela Udalak. Aurten estreinakoz, %100era arteko

diru-laguntzak banatu berri dituzte. Hau da, baldintza guztiak bete eta euskalduntzen ari diren ikasleek euskara doan ikasi dezakete jada Usurbilen. Are gehiago, behar ekonomikoan egon eta arrazoi ezberdinetatik, kasu berezietan eta kasuotako baldintzak betetzen dituztenei, Udalak matrikulazio kostuaren dirua ere aurreratu dezake. Argibide gehiago behar dituenak Potxoeneara joan edo 943 371 999 telefono zenbakira deitu dezala.

## Matrikulazioa

Gurasoentzako ikastaroaz gain, maila ezberdinetako euskalduntze saioak, autoikaskuntza, Mintzalagun... eskaintza zabala duzue aukeran Etumeta AEK euskaltegian.

Matrikulazio epeak zabalik segitzen du:

■ Astelehenetik ostiralera: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

Nagusia, 43

607 609 379.

usurbil@aek.org

www.aek.org

muntteri.blogspot.com.es

## Dirua aurreratuko zaie behar ekonomiko berezia duten ikasleei

2016-17 ikasturterako matrikulazio epea zabalik duzue Etumeta AEK euskaltegian, irailaren 30era arte. Euskara ikasi edo maila hobetzeko aukera izango duzue urritik ekainera. Gogoan izan, euskalduntzeko urratsa ematen duzuenok Usurbilgo Udalarren babes ekonomikoa jasoko duzuela. Hain zuzen, doakotasunaren aldeko apustua egin du Udalak.

### %100era arteko udal diru-laguntzak jasotzeko aukera

Euskararen doakotasunaren gai horretara itzulita, herritarren euskalduntzeko laguntza

nabarmen indartu du Udalak. %100era arteko diru-laguntzak eskaintzeaz gain, behar ekonomiko bereziak dituztenentzako diru-laguntza deialdia martxan jarri du. “Usurbilgo Udalarri garrantzitsua iruditzen zaio herritarrek euskara ikastea. Gero eta gehiago dira Euskaltegiko matrikula ordaintzeko arazo bereziak dituzten herritarrak. Bide honetatik, behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikastea erraztu nahi zaie. Oinarri hauek diru-laguntza hauek emateko baldintzak jasotzen dituzte”, dio Udalak.

### Dirua aurreratuko zaie, behar ekonomiko berezia dutenei

Behar ekonomiko berezia duten herritarrei, euskaltegiko matrikula kostua aurreratuko die Udalak. “Diru-laguntza hauen onuradun izango dira: Usurbilen erroldatuta egonik, behar ekonomiko berezia duten euskara ikasleak. Ikastaro hauek 2016ko uztailetik 2017ko ekainaren 31 bitartean egindakoak izango dira. Diru-laguntza hauetarako eskaerak Euskaltegiko matrikula egiten denean aurkeztu behar dira. Diru-laguntzen zuriaketa, berriz, 2017ko uztaila-

ren 3tik 7ra bitartean egingo da”, zehaztu du Usurbilgo Udalak.

### Bete beharreko baldintzak

■ Usurbilen erroldatua egotea.

■ Gutxienez, ikastaro osoan zehar, %80ko asistentzia izatea. (Autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea).

■ Gutxienezko aprobetxamendua gainditzea (Euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharrekoa).

■ Diru-laguntza hau jaso ahal izateko, diru-sarreraren gehiengoko mugak finkatu dira.



# Kirol ikastaroak probatzeko aukera dago, eta gainera doan

**D**enboraldi berri honetan ere bada non aukeratua Usurbilgo Udalak antolatutuen kirol ikastaroetan.

Izen emateko aukera duzue, besteak beste, aretoko jardueretan, jumping, pilates, Body Balance, zumba, spinning, aerobik edota yoga saioetan. Igerilekuko ekintzen artean, ur ludoteka, igeriketa gidatua, hastapena eta hobekuntza saioak, triatloiko igeriketa, haurdunen igeriketa, haurtxoentzako eta 3-8 urte artekoentzako saioak... ere izango dira. Egunotan, proba moduan parte hartzeko aukera egon da hainbat kirol jardueretan. Azken aukerak, ostiral honetan:

## Irailak 30, ostirala

- 16:45 Zumba Gazte.
- 17:45 Jumpfit Gazte.
- "Ate irekiak Kiroldegian! Etorri eta probatu ikastaroak!".

## Informazio gehiago:

- 943 37 24 98
- Facebook: Oiardo Kiroldegia
- Twitter: @oiardokiroldegi



Ostiral honetan egingo dute ate irekien jardunaldia. "Etorri eta probatu gure ikastaroak", gonbite hori luzatu dute Kiroldegitik.

## Eskubaloi partidak

### Urriak 1, larunbata

- 10:30 Infantil neskek, lagunartekoa: Udarregi A Udarregi B
- 15:45 Kadete neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Errotabarri
- 17:30 Jubenil neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Errotabarri
- 19:30 Senior mutilak, 1. Nazionala: Usurbil K.E.-Barakaldo

### Urriak 2, igandea

- 10:00 Infantil mutilak, lagunartekoa: Udarregi A-Udarregi B
- 12:00 Senior neskek, Zilarrezko Ohorezko Maila: Usurbil K.E.-Eharialedea

## Selekzioaren deia

### Urriak 2, igandea

- 17:30 Infantil mutilen euskal selekzioaren entrenamendu saioa, Getxoko Fadura Kiroldegian. Eneko Furundarena Maiz jokalaria deitu dute hitzordura.
- 17:30 Jubenil nesken euskal selekzioaren entrenamendu saioa, Urdulizko Iparralde Kiroldegian: Estitxu Berasategi Eizagirre, Nagore Lertxundi, Eider Makazaga Estella eta Ane Retolaza Matxinandiarena jokalaria deitu dituzte hitzordura.

# Igande honetan, Heletatik Ortzaizera mendi irteera

**A**ndatza Mendizaleen Kirol Taldeak Heleta aldeko mendiak bisitatuko ditu datorren igandean.

- Eguna: urriak 2, igandea.
- Abiatzeko hitzordua: 07:00etan Oiardo Kiroldegitik. Joan etorria: autobusez.
- Ibilbidea: 16,2 kilometro. "Urriaren 2an Usurbildik Iparraldera autobusez abiatuko gara, Heletatik Ortzaizera joateko".
- Izen ematea: irailaren 28an amaitu zen.



Irailaren 28a baino lehen eman behar zen izena.

- Informazio gehiago: andatzamendizale.info
- Oharrak:

- Otordua ibilbidea amaitutakoan egingo dugu.
- Janaria norberak eraman be-

## Endika Abril

Urriak 2 igandea  
11:00etan Zubietan  
Noizbait-Senpere

## Futbola Haranen

Urriak 1, larunbata  
■ 11:00 Kadeteak: Usurbil F.T.-Antigua Luberri K.E. "A"

## Aginagako Pilota Txapelketako finala

Irailak 29 osteguna, 20:00  
Palako finala

## Irailak 30 ostirala, 22:00

### Eskuzko finala

Arrieta-Altuna / Santxo-Aranguren

## Gipuzkoako Pilota Txapelketa Usurbilen

### Urriak 1, larunbata, 18:00

- Nagusiak binaka 2.maila: Exposito-Aranguren / Lagunak
- Nagusiak binaka 3.maila: Aranberri-Sarasola / Soraluze

### Urriak 1 larunbata, 18:00

Donostia Atano III, palaz:  
Errasti-Urdanpilleta/  
Real Sociedad

### Urriak 2 igandea, 12:00

Usurbilen eskuz, Ohorezko mailan binaka:  
Pagazpe 1-Hernani

har du.

-Edaria Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak eramango du.  
-"Andatza M.K.T.-k antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin harremanetan jarri andatza@hotmail.com helbidera idatzita".

- Antolatzailea: Andatza M.K.T.

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

Pisua salgai, Puntapax 4 behean. 43 metro<sup>2</sup>. Sukaldea, komuna, 3 gela. Gela guztiak leihoekin. Aparkaleku pribatuarekin. 120.000 euro. 637 902 096

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 eta 56) eta garajea 50m<sup>2</sup> eta terraza 9m<sup>2</sup>. Iggogailua, fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m<sup>2</sup> pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Iggogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m<sup>2</sup>. Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Prezio berria: 138.000 euro. Ramón 615149900

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trasteleku. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

## Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Etxebizitza Santu Enea 21ean. 69 m<sup>2</sup>. Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Prezioa 550 euro. Ramón 615149900.

Etxe bat Etxealdian. 3 logela, sukalde-jangela, 2 balkoi eta dena kanpora. 626 867 493.

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta

gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup> karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitarra salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje itxia alokatzen dut, 20 metro<sup>2</sup>, Kale Nagusia 22an. 618860270.

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 48.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsua. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 me-

tro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Emakume bat behar da astean hiru egunetan: bazkaria eta garbitasuna egiteko. Tel. 609 403 081.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gaitza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailetik aurrera.

Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta espezializariarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxe txiki txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona



**Zorionak Ekai!**  
Urriaren 6an zure lehenengo urtebetetzea izango da. Muxu handi bat, familiaren partez.



**Zorionak Maren!**  
11 urte zure argazki eta mezuaren zain eta oraingoan gogoratu gara. Muxu potoloa etxekoen partez.



**Zorionak Libe!**  
Irailaren 28an 9 urte bete dituzu. Ondo pasako zenuela espero dugu. Muxu handi bat.



**Zorionak Maitxia!**  
Jada 7 urte! Muxu erraldoi asko maite zaituen familia osoaren partez.



**Zorionak Martina!**  
Zoragarria zarelako eta zortzi urte beteko dituzulako igandean, Zorionak!

## Heriotzak

**Maria Luisa Calderon Casco**

85 urterekin hil zen irailaren 24ean Usurbilen



**OHARRA:** Urriaren 6an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: urriak 3 astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus



helduak edo umeak zaintzen eta garbiketari. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehalan lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehalan lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehalan lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarak egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketari lanak egiten, jabetxeren batean harraskako garbiketari egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan

egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan

egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketari, plantatzaile edo interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 766 188 411.

#### BESTELAKOAK

Txokoaalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuako txaketa beige bat galdu zen uztaillaren amaieran, ambulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-gora haurrentzako botika eta higieneko produktuz betetako laranja koloreko nezeder edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoa galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiaro Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman

nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostiatik elkarteetan. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polarrak bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztaillaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparitu nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikro-txipa jarrita ditu. 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Lagorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

3 plazako eta 2 plazako sofak salgai, laruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaui Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 29** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 30** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 01** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 02** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 03** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 04** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 05** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

## Irailak 29 - urriak 09

**Osteguna 06** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 07** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 08** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 09** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** URRUTIA YURREBASO, MAITANE Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani 943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda iraila/urria

## 30 ostirala

- **Elkarretaratzea, euskal presoen eskubi-deen alde.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Jaiak Aginagan.** Ikus gehigarri bereziko agenda 14. orrian.

## 01 larunbata

- **"Independentziarako bideak" jardunaldia** Sutegiko auditorioan, 10:00etatik 13:30ak arte.
- **Jaiak Aginagan.** Ikus gehigarri bereziko agenda 14. orrian.

## 02 igandea


- **Heleta-Ortzaize mendi irteera.** 07:00etan Kiroldetik (aurretik eman behar zen izena).
- **Endika Abril Errebote Txapelketa.** Noizbait-Senpere, 11:00etan Zubietan.
- **Jaiak Aginagan.** Ikus gehigarri bereziko agenda 14. orrian.

## “Independentziarako bideak”, larunbat honetan Sutegin hizpide

Kataluniako eta Euskal Herriko prozesuez zer entzun eta ikasia izango dugu, urriaren 1erako Nafartarrak taldeak Sutegin antolatu duen jardunaldian. “Independentziarako bideak” izenburupean, hizlari ezagun askoak gonbidatu dituzte kontuoz duten ikuspegia eta ezagutza, kultur etxeko auditoriora gerturatuko direnekin partekatzera.

### Urriak 1, larunbata

- 10:00-11:30 “El procés català”. Hitzaldia Josep-Lluís Carod Rovira ERC buru oiharen eskutik.
- 11:30-12:00 Atsedendaldia.
- 12:00-13:30 Mahai-ingurua “Euskal bi-



Josep-Lluís Carod Rovira “El procés català” hitzaldia eskainiko du larunbat goizean Sutegin.

deak”. Parte hartzaileak: Pako Aristi, Eneko Bidegain eta Ane Larrinaga.

- Sutegin. Sarrera: 10 euro.
- Izen ematea: nafartarrakusurbil@gmail.com
- Antolatzaila: Nafartarrak.
- Laguntzaileak: Nabarralde, Udala.

## OEIT mediku taldekoen hitzaldia

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko (OEIT) bi kidek hitzaldia eskainiko dute ostegun honetan, irailak 29, 19:00etan Sutegin. Xabier Mitxelena familia-medikuak eta Joxe Ramon Furundarena mediku hematologo usurbildarrak hartuko dute parte. Hiru ordu laurdeneko hitzaldia izango da, eta euskaraz.



Xabier Mitxelena familia-medikua.

### Datozenak

#### “Errefuxiatuak, ongi etorri!” erakusketa

Urriaren 15ean ospatuko den Usurbil Herri Anitza jaialdiaren atarian, erakusketa antolatu du Usurbilgo Udalak hainbat herritarrekin elkarlanean. Urriaren 8tik 15era ikusgai izango duzue Sutegiko aretoan. “Erakusketa honek jaso nahi ditu errefuxiatuen errealitateaz dagoen ezagutza eta kontzientziazio maila, eta harreraren aldeko gipuzkoar herritarren jarrera handitu, gazteen artean batik bat eta arreta berezia eskainiz adingabe eta emakume errefuxiatuen egoerari”, aurreratu dute antolatzailak.

#### Katixa Agirrerekin literatur solasaldia

Urriaren 19an asteazkena, 19:00etan, Katixa Agirreren *Atertu arte itxaron* liburua izango dute aztergai Sutegin. Liburuak jada eskuragarri daude Liburutegian solasaldian parte hartzeko interesa duen ororentzat, Sutegitik aditzera eman dutenez.



**ELORZA**  
 OBRAK ETA  
 ERREFORMAK S.L.  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Patxi**  
 Patxi  
 bazkariak EGUNERO  
 afariak, asteazkenetik larunbatera  
 © 943 362725 · © 688 690 361





**PARTE HARTZEA**

IRA 1 - URR 14

**PRESTATZEA**

URR 15

**ONARTZEA**

AZA

**KONTU EMATEA**

ABE

**Aurrekontu Irekiak 2017.**

Gipuzkoa hobea eta bidezkoagoa eraikitzeko momentua da orain. Gureagoa den Gipuzkoa. Orain zuk erabakitzen duzu Gipuzkoan zein proiektu nahi dituzun. Informa zaitez proiektuei buruz, zure ideien berri eman eta parte hartu, zure ustez gure lurraldearentzat interesgarrienak diren proiektuak lehenetsiz.

**Orain Gipuzkoa. Orain zu.**



[www.gipuzkoa.eus/partaidetza](http://www.gipuzkoa.eus/partaidetza)

URRIAREN 14RA ARTE HAR DEZAKEZU PARTE

943 112 111 • [partaidetza@gipuzkoa.eus](mailto:partaidetza@gipuzkoa.eus)

 @OrainGipuzkoa  OrainGipuzkoa

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ORAIN  
GIPUZKOA**



# URRIA

USURBILGO TXANPONAREN  
HILABETEA



USURBILGO TXANPONAREKIN ORDAINDUTA,

# %10 MERKEAGO



NON ESKURATU TXANPONAK?

• **NAFARROAKO RURAL KUTXAREN BULEGOAN.**

*URRIAK 4 ETA 11N, ASTEARTE EGUERDITAN, 12ETATIK 14ETARA.*

• **POTXOENEAN.**

*URRIAK 6 ETA 13AN, OSTEGUN ARRATSALDETAN, 18ETATIK 20ETARA.*

**TXANPON KOPURUA:**

**BEZERO BAKOITZAK GEHIENEZ 5 TXANPON ESKURATU AHAL IZANGO DITU.**

